



Memoria Korporatiboa 2020

# IMQ Igurco zu zaintzen

 **IMQ Igurco**

# Zuzendariaren gutuna



## Santiago Canales

Director General de IMQ Igurco

## Gogoratzeko eta ikasteko urtea

**Zalantzarik gabe, 2020a "Covid-19aren urtea" izatera pasa da. Urte honetan, imajina ezin genezakeen pandemia bati aurre egin behar izan diogu.**

Osasun-larrialdiak, gizarte gisa, gure zentroetan bizi ziren menpeko adinekoak isolatzea behartu gaitu. Haien isolamendua beste behar biopsikosozial batzuen aurretik jarri dugu, batzuetan bizitza bera bezainbeste edo garrantzitsuagoak direnak.

Krisia sortu zenetik, gure zentroek Eusko Jaurilaritzako Osasun Sailarekin eta Bizkaiko eta Arabako foru-aldundiekin lankidetzan jardun dute etengabe, eta haien jarraibideak bete dituzte. Lankidetzat horren ondorioz, gure profesionalen ahaleginaren ondorioz, eta senitartekoen laguntzari eta ulermenari esker, beharrezko salbuespenezko neurriak

ezarri ditugu gure zentroetan. Adinekoak ahalik eta maitasun eta errespetu handienarekin babesteko.

Ziurgabetasuna besterik ez den urte honetan, ahaztu nahi ditugun gauza asko dauden urte honetan, irakaspen batzuk atera ditugu.

Ordu gutxi barru, zentroak itxi eta isolatu ditugu.

Familiei eta egoiliarrei tableta digitalen eta gailu mugikorren bidez komunikatzeko antolatuta gara.

Gure lana langile eta egoiliarren burbuila txikitian antolatu dugu, birusarekin kontaktua izateko arriskua ahalik eta txikiena izan dadin.

NBEak erabiltzen eta gure higiene-arauak maximizatzen ikasi dugu. **Aldaketarako gure egokitzapena ikaragarria izan da.**

Eta hala eta guztiz ere, ez gara gelditu. Egoera aprobetxatu dugu 'Egoitza Gardenak' aplikazio mugikor berria eta gerokultoreen 'Erregistroen Automatizazioa' ezartzeko. Hori guztia, senideek egoiliarren egoeraren berri denbora errealean izan dezaten. Horrela, adineko pertsonak zaintzeko konpromisoa indartu, eta familien konfiantza eta lasaitasuna areagotu dugu.

Horregatik, erantzukizun handiagoa hartzen dugu urtero. Gizarteak eskatzen digun horretara egokitzen eta eboluzionatzen jarraituko dugu. Pertsonak beti egon direlako gure erabakien erdigunean.

Pertsonak baitira IMQ Igurcon egunero lan egiteko arrazoia.

01

GU

04. orria

---

02

IMQ TALDEA

06. orria

---

03

GURE ADINEKOAK  
ZAINTEKO ERREFERENTEAK

07. orria

---

04

GURE ZERBITZUAK

08. orria

---

05

EUSE COVID: GURE ERANTZUNA  
PANDEMIAREN AURREAN

15. orria

---

06

ZURE ONGIZATEAREN  
ALDE BERRITZEN

17. orria

---

07

EZAGUTZAREKIN  
KONPROMETITUAK

18. orria

---

08

EZAGUTU  
NAHI ZAITUGU

21. orria

---

---

# 01 GU

---



**Adineko hauskorren edo mendekoen arretaren eragile eraldatzaile gisa aitortuak izan nahi dugu, gure zentroetan eta Euskadiko etxeetan baliozko laguntza-zerbitzuak sustatuz.”**

## Laguntza-eredu **dinamikoa eta diziplinartekoa**

---

IMQ Igurcon, eredu asistentziala esku-hartzearen eta arretaren ideia dinamiko eta plastiko gisa ulertzen dugu. Adinekoen behar erreal eta aldakorretara bideratutako sistema, aldaketa horien ondorioak ahal den neurrian aurreratuz eta minimizatuz.

## Gure adinekoen **zerbitzura dagoen taldea**

---

Gure eredia diziplinartekotasunaren ideian oinarritzen da. Horretarako, profesional-talde kualifikatu bat daukagu, urtez urte haziz doana, asistentziaren kalitate-maila handia eta arreta profesionala, hurbila, pertsonalizatua eta gizatiarra bermatzeko.

## Gure misioa

Zerbitzu soziosanitario onenak emateko lan egiten dugu. Adinekoen bizi-kalitatea hobetzeko eta haiek eta haien senideek gizartearekin konprometitutako eta konektatutako talde baten esku daudela sentitzeko.

## Gure ikuspegia

Adineko pertsona hauskorren eta/edo mendekoen arreta eraldatzen duen eragile gisa aitortuak izan nahi dugu, gure zentroetan eta Euskal Autonomia Erki-degoko etxeetan baliozko laguntza-zerbitzuak sustatuz.

Gure bezeroa aho bete hortz utzi nahi dugu, gure taldea konprometitu eta gizartearekin konektatu.

## Gure balioak



**BEZEROA** maitte dugu: Gure izatearen arrazoia da



**AUSARTAK** gara: Aurreratu egiten gara, etorkizuna zaintzen dugu



**URBIL** gaude: Konfiantza sortzen dugu, errespetua eta maitasuna eskaintzen ditugu



**TALDE** bakarra gara: Pasioa, etika, erantzukizuna eta konpromiso sozialarekin



**PERTSONA GARAILEAK** nahi ditugu: Ausartzen den jendea, eredugarriak



Beti **HOBETZEN:** Kaudimendunagoak, errentagarriagoak, eraginkorragoak

---

# 02 IMQ TALDEA

---

## Profesionaltasuna, kalitatea eta zerbitzua

---

Igurcon harro gaude Euskadiko osasun-sektore pribatuko konpainia liderraren kide izateaz eta Estatuko garrantzitsuenetako bat izateaz: **IMQ Taldea**.

## Osasunaren zerbitzura dagoen enpresa-talde indartsua

---

**85 urtetik gorako esperientzia** duen enpresa-talde indartsua da, eta partaidetza duten ia 60 enpresaren bidez garatzen du bere jardura. Euskadin 375.000 pertsonari baino gehiagori osasun-estaldura ematen die, eta lan-osasunaren esparruan 140.000 langileri zerbitzuak ematen dizkie 5.400 enpresatan baino gehiagotan.

## Euskadiko osasun-sare handiena

---

IMQ Taldeak, gainera, **2.400 profesionalak** eta Euskadiko osasun-sare pribatu zabalenak osatzen duten koadro mediko zabala du, **11 zentro propio** eta espezialitate mediko-kirurgiko ugari ditu eskura.

## Etengabe hobetzen ari den osasun-talde bat

---

Produktuen aniztasuna, zentro eta klinika propio berriak etengabe irekitzea eta hiru lurraldeetan aktiboki egotea, bikaintasunarekiko, profesionaltasunarekiko eta zerbitzu-zaletasunarekiko konpromiso irmoarekin batera, IMQ Taldeari aukera ematen dio eskaintza integral bat bermatzeko, bere bezeroek bere bizi-zikloan zehar izan ditzaketen behar guztiei erantzuna emateko eta **ir-tenbide pertsonalizatuak, berritzaileak eta kalitatezkoak eskaintzeko**.

# 03 GURE ADINEKOAK ZAIN- TZEKO ERREFERENTEAK

Lehen mailako zentroyen  
sarea, **zugandik oso gertu**



**+ 18**  
urteko ibilbidea



**+ 61 milioi**  
euro azpiegituretan

**7**

Egoitza  
kopurua

**9**

Eguneko zentroak

**28**

Tutoretzapeko  
apartamentuak

Eta egungo eta  
etorkizuneko  
**profesionalik  
onenak** ditugu

Taldeko langileak



Praktiketako langileak



Plaza publikoak, pri-  
batauk eta itunduak  
ditugu **bezero**  
**bakoitzaren behar**  
**zehatzei behar**  
**bezala erantzun**  
**ahal izateko**

**1.258** plaza guztira

Egoitza-zentroak: **876 ohe**

Eguneko zentroak: **332 plaza**


Tutoretzapeko apartamentuak: **50 plaza**

IMQ Igurco Araba ospitalea: **Egonaldi**  
**ertain-luzeko 35 ohe**

# 04 GURE ZERBITZUAK

## Urtetik urtera gero eta jende gehiagok jartzen du konfiantza gugan

IMQ Igurco Euskadiko **sektore sozio-sanitarioaren eragile nagusietako bat da**, eta lehen mailako zerbitzuak eskaintzen ditu, adineko pertsonen bi-zi-kalitatea hobetzera eta gaitasun fisiko eta kognitiboak ahalik eta gehien mantentzera bideratutako diziplina arteko arreta bermatzen duen profesional-talde baten eskutik.




Fakturazioa: azken urteotako fakturazio-igoerarekin

## Egoitza-zerbitzua

Gure egoitzek banakako asistentzia eta jarraipen medikoa, gaitasun fisiko, kognitibo, funtzional eta sozialei eusteko laguntza-programak eta eguneroko bizitzako jardueretarako laguntza dituzte.

### Urteko egonaldiak:



**834**  
erabiltzaile,  
batez beste,  
egunean

\*Oharra: EZak itxita egon dira martxoa eta iraila bitartean.



# Gure egoitza soziosanitarioak

Zugandik hurbil daude, adineko pertsonak ahalik eta profesionaltasun handienarekin zaintzeko.



IMQ Igurco Araba



IMQ Igurco Bilbozar



IMQ Igurco Forua



IMQ Igurco Jose  
María Azkuna



IMQ Igurco Orue



IMQ Igurco Unbe



**2.500 pertsona** baino  
gehiago artatu ditugu  
**310.000 egonaldi** bai-  
no gehiago izapidetuz.”




IMQ Igurco Zorrozoiti

# Gure eguneko zentroak

Arreta zaindua eta profesionala eskaintzen dute, adinekoei eta haien zaintzaileei laguntzeko.



Aiboa Getxo



Bilbozar



Estartetxe Leioa



Ondarroa



Otxarkoaga




Plazakoetxe Galdakao



San Adrián Bilbao



Ugao-Miraballes



Zorroztziti Zorroza


# IMQ Laguntza eta IMQ Klinikak

IMQ Laguntzak gure ezagutza toki bakar batean batzen du, gure bezeroek eta senideek **zalantzak argitu eta sektore publikoan zein pribatuan dauden irtenbide soziosanitario onenak** lortu ahal izan ditzaten.

## Zerbitzu paregabea merkatuan

Doako zerbitzu honen bidez, adin-ekoei eta haien familiei laguntzen diegu bizi-kalitatea hobetzeko erabakiak hartzen.

Leihatila bakarra da, eta **bertara bertarata, telefonoz edo posta elektronikoz** jo daiteke.



*IMQ Laguntzak aurrez aurre artatutako kontsulten bilakaera azken urteetan*

*2020an gehien kontsultatu diren gure zerbitzuak: jasotako kontsulta guztiekiko %*


Teleguntza	Suspertze Funtzionaleko Unitatea	Etxeko Laguntza	Egoitzak	Bestelako zerbitzuak
%31	%19	%14	%10	%26

## Etxean zaintzeko plana


**Gure talde profesionalen ezagutza gure erabiltzaileen etxeraino eramaten dugu**, beren etxetik osasuna koordinatzeko, kontrolatzeko eta zaintzeko zerbitzu bat eskuratuz autonomia-maila handiagoa izan dezaten.

## Telelaguntza

**Urteko 365 egunetan 24 orduz** funtzionatzen duen zerbitzua. Bakarrik bizi diren edo eguneko orduak konpainiarik gabe igarotzen dituzten pertsonentzat pentsatuta dago, eta talde profesional batek lagunduta sentitu nahi dute. Talde horrek, botoi bat sakatuta, larrialdi bat edo laguntza behar duen edozein egoera konpontzeko behar diren baliabideak mobilizatuko ditu.



*Telelaguntza-zerbitzuaren onuradunen bilakaera*



## Errekuperazio Funtzionaleko Unitatea

**Errekuperazio Funtzionaleko Unitatea (EFU)** arazo akutu bat errekeratzeke fasean dauden eta errekeratu daitekeen autonomia-galera duten pertsonengan espezializatutako zerbitzua da.

### Tratamendu asistentzial indibidualizatua

Geriatra batek zuzendutako diziplina anitzeko talde batek errehabilitazio-aldian parte hartu ondoren, pertsona etxera itzul daiteke, eguneroko bizitzako oinarritzko jardueretan **batez beste 20 puntuko autonomia hobetuta**.

	2016	2017	2018	2019	2020
Orue	11.608	12.997	13.191	13.870	16.854
Unbe	5.430	7.227	9.446	9.974	7.121

*Orue eta Unbe ko EFU unitateko egonaldi kopurua*

#### Ortojeriatria

Aldakaren, ornoen, sorbaldaren eta abarren hausturak.

#### Neuro-errehabilitazioa

Istripu zerebro-baskularrak (iktusa).

#### Susperraldiak

Ospitalean edo etxean egonaldi luzeak egin ondoren, gaitasun funtzionalaren galera prebenitzeko edo hobetzeko.

#### Bizitzaren amaierako zaintzak

Zainketa integralak itxaronaldi mugatu ekoeran dauden pazienteentzat.

## Zainketa aringarriak

Hainbat jarduera egiten ditugu zainketa aringarri osoak, aktiboak eta jarraituak emateko, pazienteen eta haien senideen bizi-kalitatea hobetzeko.

IMQ Igurco Araban 2020an izandako egonaldi kopurua

Aringarriak: 3.872

\* 2020a Igurcoren kudeaketa osoaren lehen urtea.

## Bizitzaren amaierako zaintzak

Laguntza profesionala, pertsonalizatua eta integrala eskaintzen dugu, pertsona bakoitzaren premiei erantzuten diena, eta **personen duintasunarekiko errespetua eta giza tratua** bermatzen dituen gaixotasun aurreratu, progresibo, sendaezin eta tratamendu espezifikoa erantzuteko aukerarik gabeko kasuetan edo berehalako heriotzaren kasuan.

## Paziente kronikoentzako arreta

Lehen mailako gure profesional-taldeak erabiltzaile bakoitzaren **etengabe jarraipena** egiten du, gaitz kronikoak dituztenek **tratamendu indibidualizatu** izan dezaten, eta haien bizitzaren gaineko kontrola itzul diezaieten.

IMQ Igurco Araban 2020an izandako egonaldi kopurua

Kronikoak: 1.462

\* 2020a Igurcoren kudeaketa osoaren lehen urtea.

# Balorazio geriatriko integrala

Patologia ugari eta sendagai askoren kontsumoa dituzten pertsonentzat edo eguneroko bizitzan eragina duten narriadura funtzional kognitibo emozionala dutenentzat pentsatutako zerbitzua da.

## Diziplina anitzeko profesional-taldea

Pazientearen arazo nagusiak aztertzen ditu, eta, azterketa horren emaitzetan oinarrituta, **zainketa integraleko plan bat** ezartzen da, pazientearen bizi-kalitatea hobetzeko.



Azterketa / 3 eguneko ospitaleratzea

1   Fisioterapia eta terapia okupazionala	2   Medikua geriatra eta erizaintza
3   Gizarte langilea	4   Psikologoa


IMQ Igarurko Unbe eta IMQ Igarurko Orue zentroak

## Geriatrico kontsultak

Kontsulta horretan, **geriatrico mediku espezialista** bat arduratzen da 65 urtetik gorako pertsonen gaixotasun fisiko, mental, funtzional eta sozialez. Gaitz horiek kronikoak izan daitezke edo baliaezintasuna eragin dezakete.



Kontsulta honen helburu nagusia erabiltzailearen **autonomia-galera prebenitzea edo hobetzea da.**”




Geriatrico kontsulten bilakaera: azken bost urteetako kontsulten gorrakada

# 05 EUSE COVID

## Gure erantzuna pandemiaren aurrean

COVID-19ak Bizkaiko egoitzetan duen intzidentzia handia dela eta, IMQ Igurcon **Egoitza-unitate Soziosanitario Espezializatu (EUSE)** bat sortu genuen, Bizkaiko Foru Aldundiarekin eta Osakidetzarekin hitzartua.



## EUSE COVID zerbitzuak



**Erizaintza  
24 orduz**



**Mediku  
arreta 12/7**



**Mediku  
geriatra**

Pandemian zehar, kasu positiboak unitate honetara bideratu nahi izan dira, erabiltzaile bizikide osasuntsuak babesteko.

Behin unitatean bertan, COVID unitatean sartu diren pertsonen **aldagai sozio-demografikoen, klinikoen, funtzionalen eta emaitza-aldagaien atzera begirako azterketa** egiten da.

## EUSE COVID datuetan



Garraio azkarra:  
**>4 ordu**



Artatutako biztanleria:  
**272 pertsona**



Bataz besteko adina:  
**75,03 urte**




Bataz besteko egonaldia unitatean:  
**20,96 egun**

## Baliabide eraginkorra

### 01.

Bizitegi-eremu nazionalen agertutakoa baino **hilgarritasun txikiagoa** lortu du.

*Heriotza tasa*



**%87**

Baliabidea berriro erabil-tzen duten IMQ Igurco pazienteak

### 02.

**PEUren intzidentzia ospitale-estandarren azpitik** murriztu du (GNEAU-PP 2013, %7,87).

### 03.

Jatorriko egoitzetan pertsona osasuntsuen transmisioa **geldiarazi du**.

### 04.

Instituzionalizatutako adineko pertsonen **preskripzio farmakologikoa optimizatzea** bermatu du.



# 06 ZURE ONGIZATEAREN ALDE BERRITZEN

## Osasun-laguntzaren abangoardian

IMQ Igurcon konpromisoa dugu osasuna etengabe hobetzeko eta adinekoak zaintzeko; horregatik, berrikuntza- eta ikerketa-proiektuetan parte hartzen dugu, hirugarren adinekoentzako **laguntza-teknologian azkena** eskaini ahal izateko.

### Erregistroen automatizazioa

Gure asistentzia-kudeaketako sistema zentralizatuari konektatutako tabletak ezarri ditugu. Horrela, erizaintzako laguntzaile bakoitzak informazioa erregistra dezake, papera erabili beharrik izan gabe, datuak berehala eguneratuz eta kontsultatuz, egoitzako edozein lekutatik.

### Tour Birtualak

Bidaia birtualak bere hirian, pantaila erraldoi interaktiboen bidez, komunitatean kide izatearen sentsazioa mantenduz.

### Egoitza Gardenak

Aplikazio bat senideek beren adinekoen eguneroko informazioa azkar eta erraz izan dezaten, haien egoerari, jardueri, zainketei eta tratamenduei buruzko informazioarekin, eta arreta ematen dieten profesionalekin zuzeneko komunikazioarekin.

### COVID-19-aren alerta goiztiarra

Egoitzetan SARS-CoV-2ren antzemate goiztiarra emateko eta hondakin uren analisi sistematiakoaren bidez kontzentrazioak zehazteko proiektu pilotua. Proiektu hau Bialde eta AgrupaLab erakundeekin akordioa lortu ondoren gauzatuko da.

### COVID-19-aren errehabilitazio programa

Covid-19k eragindako adineko pertsonentzako ariketa fisikoen programa telematikoa, haien funtzionaltasuna eta bizi-kalitatea hobetzeko helburuarekin.

# 07 EZAGUTZAREKIN KONPROMETITUAK

## Elkar hartuta zu zaintzeko

Zerbitzu soziosanitarioen erakunde gisa, IMQ Igurcon uste dugu irakaskuntza, zentro anitzeko ikasketak eta beste erakunde batzuekiko lankidetzaz ezinbestekoak direla **kalitatezko arreta eta zaintza** emateko.



**Ospitaleak:** Galdakao-Usansolo, Gorliz eta Santa Marina.

**Erakunde Sanitario Integratuak (ESI):** ESI Barrualde-Galdakao, ESI Bilbao-Basurtu, ESI Uribe batzorde soziosanitarioko partaideak.

**Unibertsitateak:** Euskal Herriko Unibertsitatea, Deustuko Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitate Publikoa, Bartzelonako Ramon Llull Unibertsitatea, Valenziako Blanquerna Unibertsitatea.

**Ikerketa-zentroak:** Bioef (Berrikuntza eta Ikerketa sanitarioarako Euskal Fundazioa), Biocruces (ESI Ezkerralde Enkarterriko Ikerketa Sanitarioko Institutua).

## Gure jardueraren berri ematen

**65 Albiste**  
bidali dira

Asterokoak: **47**

Barne oharra eta  
Familiakoak: **18**

Gure jakinarazpenak **+1.300**  
**hartaileengana** iristen dira

**+ 405** Langile

**+ 593** Senideko

**+ 206** Preskriptore

## Biltzarretan parte hartzen

- ICFSR 2020 Biltzarra: komunikazioaren aurkezpena "Prevalence and factors associated to sarcopenia in very old communities dwelling people with high comorbidity".
- World Congress on Osteoporosis, Osteoarthritis and Musculoskeletal Diseases (Virtual WCO-IOF-ESCEO 2020): posterra "Factors associated to incidence and develop sarcopenia in very old people living in the community".
- Ponentzia EMALKE-SEMES Euskadi Larrialdi eta Larrialdiei buruzko XXIV. Jardunaldian. CONSTRUYENDO-GARATZEN: "Adinekoak: zure adinak paziente geriatrikoa izatea baldintzatzen ez duenean".
- UPV-EHuko Uda Ikastaroak: "Sektore soziosanitarioaren arazoa. COVID-19ak sektorean duen eragina".
- HEALTHY AGEING WORKSHOPS UK-BASQUE COUNTRY kongresua, a challenge for innovative solutions. Bilboko Britainiar kontsulatuak antolatua "The vision for private social and Health-care services".
- Webinar Begiko Kirugiaren Iberoamerikako Elkartea: "Kataraten kirurgia nahasmendu kognitiboa duten pazienteentzat. Pazientearekin eta haren ingurunearekin komunikatzeko tresnak ezagutzea".
- Webinar Zahartzaroa: "Adinekoekiko arreta Covid-19aren garaian".



**9 biltzar 2019an:**  
8 hitzaldi eta 15  
komunikazio.”

# Etorkizuneko gizartea prestatzen

2020an ere irakaskuntzarekin konprometituta jarraitu dugu **gure master unibertsitarioen bidez**:

## Zahartze Osasuntsuari eta Bizi-kalitateari buruzko Masterra

Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioako Kanpusa

## Zainketa Aringarrietako Arreta Integraleko Unibertsitate-masterra

Euskal Herriko Unibertsitatea. Leioako Kanpusa

## Gerontologiako Unibertsitate-masterra

Deustuko Unibertsitatea. Bilbo

# 08 EZAGUTU NAHI ZAITUGU

## Gure zentroak zure zerbitzura daude, baina **zentroen muina zeu zara**

Dei bat egin edo e-mail bidez idatz diezagukezu, eta gure zerbitzuei buruzko informazioa emango dizugu. Zure zalantza edo kontsulta guztiei erantzungo diegu. Gure zentroetako edozeinetara ere hurbil zaitezke, eta gustura hartuko zaitugu.

**IMQ Informazioa eta Harremana**

Tel. 900 107 061  
K/ Maximo Aguirre 18 bis, 4. solairua  
48011 Bilbao (Bizkaia)

### IMQ Igurgo Egoitzak

#### Bilbozar

Tel. 94 679 27 41  
K/ Vitoria Gasteiz 12  
48003 Bilbao (Bizkaia)

#### Forua

Tel. 94 625 60 73  
Elخالde auzoa, 34  
48393 Forua (Bizkaia)

#### Jose M<sup>a</sup> Azkuna

Tel. 94 630 99 55  
K/ Jose Antonio Aguirre z/g  
48340 Amorebieta  
(Bizkaia)

#### Orue

Tel. 94 630 05 50  
Dudeako San Migel auzoa, z/g  
48340 Amorebieta-Etxano  
(Bizkaia)

#### Unbe

Tel. 94 453 70 02  
Gorri bidea, 2  
48950 Erandio (Bizkaia)

#### Zorrozoiti

Tel. 94 474 25 36  
Zorrozoiti bidea, 23  
48013 Bilbao (Bizkaia)

#### Araba

Tel. 945 14 21 00  
Salbaterrabide kalea, 9  
01007 Vitoria-Gasteiz  
(Araba)

### IMQ Igurco Eguneko Zentroak

#### Aiboa Getxo

Tel. 94 465 94 44  
K/ Ormetxe, 22  
49992 Getxo (Bizkaia)

#### Bilbozar

Tel. 94 679 27 41  
K/ Vitoria Gasteiz, 12  
48003 Bilbao (Bizkaia)

#### Estartetxe Leioa

Tel. 94 480 35 68  
K/Estartetxe 2, 4, 6 Behea  
48940 Leioa (Bizkaia)

#### Ondarroa

Tel. 94 603 60 63  
K/ Ináni Deuna, 21 Behea  
48700 Ondarroa (Bizkaia)

#### Otxarkoaga

Tel. 94 459 81 54  
K/Zizeruene, 4  
48004 Otxarkoaga  
(Bizkaia)

#### Plazakoetxe Galdakao

Tel. 94 457 34 91  
Plazakoetxe, 3. txaleta  
48960 Galdakao (Bizkaia)

#### San Adrián

Tel. 94 470 07 06  
San Adrián etorb. 33, 35,  
37 Behea  
48003 Bilbao (Bizkaia)

#### Ugao-Miraballes

Tel. 94 648 29 52  
Udiarraga 79 Behea,  
El Jaro auzoa  
48490 Ugao-Miraballes

#### Zorrozoiti Zorroza

Tel. 94 425 36 54  
K/ Zorrozoiti bidea, 23  
48013 Bilbao (Bizkaia)

# **IMQ** Igurco Zu zaintzen

Lanean dihardugu adineko pertsonak eta haien senideek esku onetan daudela senti dezaten.

---

*2020ko Memoria Korporatiboa*

---

**¡CUENTA  
CONMIGO!**

**KONTATU  
NIREKIN!**